


Espainiako Legebiltzarrerako



hauteskundeetan atarian

Cabases: «UPN eta PSNk sortutako etsipenak EA-EUEn du aterabidea»

Koalizioak dienez PSOEek ez du EE zenaren botorik jasoko

EA-EUE koalizioak Nafarroako bere hautagaiak aurkeztu zituen atzo. Kongresurako zerrendaburu den Iñaki Cabasesek azaldu zuenez, «UPN-PPk eta PSN-PSOEek sortutako etsipenak EA-EUEn du aterabidea, koalizioak bakarrik ordezkari dezakeelako eraginkortasunez Nafarroa abertzale eta aurrerakoia».

A. UNANUE / IRUÑEA

Cabasesekin batera Carlos Garaikoetxea Eusko Alkartasunako lehendakaria, Xabier Gurrutxaga Euskal Ezkerrako idazkari nagusia eta Nafarroako gainontzeko hautagaiak egon ziren. Madrilerako Legebiltzarreko zerrendan Koldo Martinez (EUE), Patxi Oiarzabal (EA), Gloria Agerri (EA) eta Pello Zia (EUE) azaltzen dira Iñaki Cabasesen atzetik. Senaturako, berriz, Javier Aiesa (EA), Javier Ortigosa (EA) eta Benicio Agerrea (EUE) dira koalizioaren hautagaiak.

Nafarroako bost eskainuak UPN-PP eta PSN-PSOEn eskuetan daudela gogorarazi ondoren, EA-EUEk ordezkari horiek sortzen duen «etsipenezko botoa» jasotzea espero duela azaldu zuen Cabasesek, «Nafarroa ezin dugulako best laurteztaz ordezkari gabe utzi». Halaber, abertzale nafarrentzat balioko aukera bakarra EA-EUE dela gehitu zuen, «gure printzi-



Iñaki Cabases da EA-EUEko zerrendaburua.

JOXE

pioak ahaztu gabe, pragmatismoz eta eraginkortasunez jokatzeko dugu eta».

Garaikoetxeak ere eraginkortasunaren leloari eutsi zion. Izenik aipatu gabe, Herri Batasuna kritikatu zuen «Nafarroako abertzaleen botoak bahitzeagatik. Abertzaleen botoak bereganatzen dituzte, baina gero ez dituzte horien interesak behar den lekuan defenditzen, eta testimonialismo hutsean geratzen dira».

EAEko lehendakariaren esanetan, EA-EUEren proiektua abertzalea, demokratikoa eta aurrerakoia da eta ezaugarri horiek bereizten ditu EAJ eta HBtik. Garaikoetxeak Madrilerako Kongresua beste alderdi nazionalistekin «bloke handia» osatzeko asmoa agertu zuen. Bere irudiz,

«bloke hori erabakiorra izango da PSOE eta PP nahiko parekatuak geratzen badira».

Gurrutxagak, bestalde, EA-EUE koalizioak «batasun-gogoa egia bihurtu» duela eta «Euskal Herri osoan behar dugun batasun abertzale hori Nafarroan inon baino premiazkoagoa» dela gehitu zuen. Hori dela eta, baikor agertu zen, Nafarroan emaitza onak lortuko dituztelakoan. EUEko idazkariak azpimarratu zuenez, «EE zenaren boto bakar bat ez da PSN-PSOEn galduko, EEren ideal guztiak —Euskal Herri librea, demokratikoa eta aurrerakoia— gure koalizioan daudelako orain. Botoa EEri ematen ziotenek printzipio berberak defendituko dituzte botoa EA-EUEri emanez».

Botoak Euskadira ala Ezkerrara?

A.U. / IRUÑEA

■ PSE-EE bategiteak Nafarroako Euskadiko Ezkerra lurperatu bazuen ere, Euskadiko Ezkerra zenari gaurkotatua eman diote hauteskundeak. Izan ere, herrialde honetan 1989. urtean lortu zituen zortzi mila botoak daude jokoan.

Euskal Autonomi Elkartearen egindako bategiteak ez zuen parrerik izan Nafarroan. Josu Oteriz eta Ramon Arozarena, agian Nafarroako EEko aurpegi ezaugarriak, ez zeuden PSOE eta EE batzaren alde eta, etsita, egunero politikatik aldentu dira. PSNra EEko bi kide besterik ez ziren sartu, inolako eraginik ga-

be. Izquierda Unidan ez ziren gehiago sartu, baina alderdi ez-kertiarrak leku hobea eskaini die. Horrela, Fernando Goñi EEko antolakuntza arduraduna zena IUren zerrendetan ageri da, Madrilerako Legebiltzarrerako.

Bestalde, Euskal Ezkerrak 16 kide bereganatu ditu Nafarroan eta Koldo Martinez, Pello Zia eta Benicio Agerrea sartu ditu EA-EUE koalizioaren zerrendetan.

Gauzak honela, EUEko ordezkariak eta IUkoek ziurtatzen joaten atzo PSN-PSOEek ez duela EE zenaren botorik jasoko. Horiek nora joango diren esateko orduan, berriz, ez ziren bat agertu, bakoitzak bere etxera eraman nahi izan zituen eta. Xabier Gu-

rrutxaga EUEko buruaren arabera, EA-EUE koalizioak esku-ratuko ditu, «EEk defenditzen zituen printzipioak hemen daudelako orain». Haatik, EE Nafarroan Euskadikoa baino Ezkerrakoa zela uste du Fernando Goñik. IUren hautagaiak adierazi zuenez, «baliteke Euskal Autonomi Elkartearen EA-EUE koalizioa erakargarriagoa izatea, hango EEen joera abertzalea nabarmenagoa zelako. Baina hementxo EEen pisu handiagoa zuen joera ez-kertiarrak eta, horregatik, hauteskundeetan ezker-eskuin dialektikak nazionalista-zentralistak baino indar handiagoa izango du». Denborak esango du, beraz.



IUK beren hautagaiak aurkeztu zituen atzo.

JOXE

Nafarroan hirugarren indarra izateko asmoa agertu du IUK

A.U. / IRUÑEA

Izquierda Unida-Ezker Batua Herri Batasunari aurrea hartu eta Nafarroako hirugarren indarra bihurtzeko asmoa agertu zuen atzo, bere hautagaien aurkezpenean. Ezaguna zenez, Felix Taberna izango da Madrilerako Legebiltzarrerako zerrendaburu, atetik Martin Landa, Paco Jimenez, Ana Figueras eta Fernando Goñi EEko kide ohia dituela. Kongresurako Jon Erro, Mari Carmen Garatea eta Victor Rodriguez izango dira IUren hautagaiak.

Tabernak azaldu zuenez, «hauteskunde hauetan hiru indar besterik ez daude Nafarroaren alde zerbait egin dezaketenak eta horiek UPN-PP, PSN-PSOE eta IU dira». Nafarroako IUko koordinatzailearen arabera, bere alderdia egunetik egunera sendotuz doa herrialde honetan eta ekainaren 6ko bozketan «Herri

Batasunak behera egingo du eta IUk gorakada nabarmena izango du». Tabernaren ustez, IUren boto berriak HB, PSN eta EEtik etorriko dira, hauteskunde hauetan aurreneko botoa eman ahal izango duten 15.000 nafarrak ahaztu gabe.

IUren hautagaitzari dagokionez, bere «aniztasuna» azpimarratu zuen Tabernak, bertan Unai, Auzolan, PCE, PSN eta EEko kideak ageri direlako.

Alderdi ez-kertiarraren helburua, bere zerrendaburuaren hitzetan, «PSOE ezkerretik pasa eta eskuinaren agintea eragozte» da. Tabernak garrantzia kendu zion Madrilerako zerrendekin gertatutakoari eta han izandako haserreak PSOE ez duela salbatuko esan zuen. IUkoa kezkatuago azaldu zen abstentzioaz. Tabernaren iritziz, «oso larria izango litzateke alderdiren batek herriaren % 15en sostenguari agintzerik edukiko balu».

«Abstentzio aktiboaren» botoa bereganatu nahi dute Berdeek

DONOSTIA

Berdeak koalizioak «abstentzio aktiboaren» botoak bereganatzea du helburu nagusi datozen hauteskundeetan. Halaber, ohiko alderdi politikoekin «desengainatuta» dauden hautesleak eta «berdeen eran pentsatzen duen gazteria» erakarri nahi dituzte ekologistek, Joaquin Gimenez Berdeak-eko ordezkariak atzo Donostian adierazi zuenez.

Berdeak eta Euskal Herriko Berdeak koalizioan aurkeztuko dira ekainaren 6ko hauteskundeetan Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian. Juan Dominguez Berdeak-eko bozeramaileak aitortu zuenez, ez dute itxaropenik ordezkari izateko EAEn, baina bere ustez hauteskundeok balio dezakete euskal herritarren sentsibilizazio ekologista go-

rantz doala adierazteko.

Dominguezek uko egin zion Kongresurako eta Senaturako hautagaien izenak emateari «garrantzitsuenak ideiak baitira». Hala ere, elkarte ekologistetan eta gizarte mugimenduetan aritutako pertsonak dira, «politikari eskerrak bizitzeko asmorik ez dutenak», indarkeria gaitzesten dute eta herriek eta komunitateek mugak ordezkatzeko dituzten mudu batean sinesten dute, berdeek esandakoaren arabera.

Ekologista izateaz gain, koalizioaren izaera politikoa azpimarratu nahi izan zuen Iñaki Artetxe Euskal Herriko Berdeak-eko kideak. Bere esanetan, hauteskundeetan atetik duten azken helburua «mugimendu alternatiboa» sortzea da eta instituzioetan parte hartuko duen «erreferente politikoa sortzeko prozesua hastea».